

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AIREONTZIETAKO MOTORREN ETA HELIZEEN MANTENTZE-LAN OSAGARRIAK	Iraupena	40
		Espezifikoa	
Kodea	UF0962		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Aeronautika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Aeronautikako mantentze-lan osagarriak	Maila	1
Prestakuntza-modulua	Aireontzi-lantegiko lan osagarriak.	Iraupena	210
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Sistema mekanikoen eta aireontzietako fluidoan mantentze-lan osagarriak.	Iraupena	50
	Aireontzietako sistema elektrikoen mantentze-lan osagarriak.		60
	Aireontzi-barrualdea hornitzeko mantentze-lan osagarriak.		30
	Aeronautikako segurtasuna eta laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa (Zeharkakoa)		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1316_1 AIREONTZI-LANTEGIKO MANTENTZE- ETA ZERBITZU-LAN OSAGARRIAK EGITEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin, motorrei eta helizeei dagokienez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Motor eta helizeetan gehien aldatzen diren elementuak deskribatzea eta haiek non dauden jakitea.
- E1.1 Motorraren ekipamenduko elementuak desmuntatzeko eta muntatzeko prozedura ezartzea.
 - E1.2 Motor eta helizeetatik desmuntatutako elementuak paketatzeko prozedura eta elementu horiek garraiatzeko euskarriak eta orgak zaintzeko modua deskribatzea.
 - E1.3 Motorraren garbiketa teknika egiteko prozedura identifikatzea, alde aurretik desmuntatu beharreko elementuak eta babestu beharreko presio-, estatika- eta aire-hartuneak aintzat hartuz.
 - E1.4 Helizearen garbiketa teknika egiteko prozedura deskribatzea.
 - E1.5 Gehien babestu beharreko helize-eremuak (izozteen kontrako eremuak, hegaleko olio-zigiluak eta helizearen domoa, besteak beste) identifikatzea.
- A2: Motorraren QEC (*Quick Engine Change*) kita osatzen duten elementuak identifikatzea.
- EI2.1 Erreakziozko motorren eta helize-motorren QEC kitaren ezaugarriak desberdintzea.
 - EI2.2 Kasu praktiko batean:
 - QEC kita desmuntatzea.
 - QEC kita desmuntatzeko metodo bereizgarrienak aplikatzea.
- A3: Motorrak eta helizeak mantentzeko eta zaintzeko ekintzak deskribatzea.
- EI3.1 Motorrak eta helizeak biltegitratzeko lantegi bateko ingurumen-kondizioak identifikatzea.
 - EI3.2 Kasu praktiko batean, biltegitratutako motor eta helizeetan aldizkako mantentze-lanak egitea, alderdi hauek kontuan hartuz:
 - Konpresore-biraketa.
 - Hezetasun-neurketa.
 - Koipeztaketak.
 - Erregai-sistemaren zainketa.
 - EI3.3 Gordeta egon diren motorrak eta helizeak martxan jartzeko lanak egitea, erregai- eta lubrifikazio-sistemei dagokienez, lan hauek eginez:
 - Motor- eta/edo -helize-garbiketa.
 - Aire-hartuneei babesgarria kentzea.
 - Elementuen instalatu aurreko azterketa.

Edukiak

1. Motorren eta helizeen elementu sinpleen desmuntaketa eta muntaketa

- Erregai-sistema.
 - Iragazkiak.
 - Izotz-detektatuak.

- Etete-balbulak.
- Elikatze-hodiak/-tutu malguak.
- Olio-sistema.
 - Iragazkiak.
 - Biltegia.
 - Etete-balbulak.
 - Hodiak/Tutu malguak.
 - Partikula-detektigailuak.
 - Erradiadoreak.
- Odoluste-sistema.
 - Iragazkiak.
 - Hodiak.
 - Balbulak.
- Sutze-sistema.
 - Kableak.
 - Sutze-kaxak.
 - Bujiak.
- Aire-sistema.
 - Deskarga-balbulak.
 - Beso gidarien sistemak (IGV edo *Inlet Guide Vanes*).
 - Inbertsore-sistema.
- Hari-neurriaren kontrol-sistema.
 - Balbula-kaxa.
 - Ponpa-kaxa.
 - Domoa.

2. Motorrak/helizeak biltegitratzeko, garraiatzeko, igotzeko eta jaisteko tresneria.

- Biltegitratzeko tresnak.
 - Biltegitratzeko orgak.
 - Biltegitratze-edukiontziak.
- Garraiatze-tresnak.
 - Garraiatzeko orgak.
 - Garraio baterako edukiontziak.
- Motorrak/helizeak igotzeko/jaisteko eslinga-/orga-motak.
 - Altxatzeko tresnak (eslingak).
 - Igotzeko/jaisteko tresna hidraulikoak/mekanikoak.

3. Zaintza eta garbiketa teknikoak egiteko metodoak

- Motorrak eta helizeen zainketa.
 - Biltegitratutakoaren zainketa.
 - Garraiorako zainketa.
- Garbiketa teknikoak eta mantentze-lanak.
 - Garbiketa teknikoak egiteko prozedura ohikoenak.
 - Motorrak eta helizeak zaintzeko/garbitzeko mantentze-lanak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpiderik gabe.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Aeronautikako mantentze-lan osagarriak